

Amaia Aldaik Egiako pelota txapelketea irabazi dau binaka

11. orrialdea

Niko Etxart eta Kerobia Udagoieneko Osteragaz Igorren

Hilaren 12an, 20:00etan, Niko Etxartek, Hapa Hapa taldeagaz, eta Kerobiak kontzertua eskainiko dabe. Jon Martinez "Txiki" bakarlariak ipiniko dau umorea. Udagoieneko Ostera, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau Foru Aldundiagaz, kultura eta euskera sustatzeko asmoz. **13. orrialdea**



Ondo doa Lemoatx Trail mendi lasterketako izen-emotea

11. orrialdea

Zinuema egitasmoaren proba pilotua Igorren egingo da

Holan, datorren aurtengo zementitik datorren urteko zezeilera arte Igorreko Lasarte Aretoan, euskerazko 12 ikus-entzunezko osotutako egitaraua eskainiko da.

Ondo joan ezker, proba honek, eskaintza egonkorrago bat diseinatu ahal izateko balioko dau. Zinema aretoetan dagoan euskerazko eskaintza urriari erantzuteko asmoz sortu dabe Zinuema, UEMAk eta Tinko Filmeak alkarlanean. "Beti sustatu gura izan dogu herritarrek euskerazko kulturaz gozatzeko aukerea izatea" adierazo eban Illart Gumuzio Igorreko alkateak ekimenaren aurkezpenaren prentsaurrekoan. **9. orrialdea**



Sex-sua narrazino liburua kaleratu dau Karlos Aretxabaletak



Elkar argitaletxeagaz Bediako Karlos Aretxabaletak, 9 narrazino erotiko batzean dituan *Sex-sua* izeneko liburua kaleratu dau. Joan dan hilean egin zan liburuaren aurkezpen ofiziala Donostiako Elkarren eta Durangoko Azokako Ahotsean be egingo dau beste aurkezpen bat abenduaren 7an. Zementiaren 7an, 18:30ean, barriz, Arratiako Berbalagunen ekimenez, Igorreko Kultur Etxean egongo da liburua aurkeztan. **8. orrialdea**

IGORRE

Udalak Foru Aldundiari aurkeztu deutso Industrialdea proiektua

Igorreko Udalak, Igorre Industrialdeko enpresa ordezkariak eta Errota Fundazioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia sustatzeko Sailagaz batu ziran urri bigarrenaren proiektua aurkeztu eta finantziar bideak topetako. Helburua debalautako gune bat berreskuratzea da. **6. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE

Arratia garbia kanpaina abian, gaikako zabor bilketea bultzatzeko

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Arratia garbia kanpaina ipini dau mar-tan, zaborra gaika sailkatzearen garrantziaz sensibilizetako. Arratian zaborra-ren %30 baino gitiago batzean da gaika bananduta. Leku gehiagotan eta sarriago batzeako eukiontzak eta kamioia erosiko ditu AUMk. **7. orrialdea**

LEMOA

Arratiako Caritasek pobreziaren kontrako eguna antolatu dau Lemoan

Zementiaren 12rako, "Pobree-kin pobre" lemapean, jaialdi bat antolatu dau Arratiako Caritasek Lemoako kiroldegian. Musika, antzerkia, jantzaldiak eta txokolatea egongo dira besteak beste. Batuko daben dirua, Caritasen Auzobizi Bizkaia gazte migratzaileen inklusiorako behar egiten dauan proiekturako izango da. Proiektu honek, kale egoeran dagozan gazte migratzaileei etxea eta ikasketak eskaintzen deutsez. Dirua, zozketarako txartelen salmentatik batuko da. **5. orrialdea**

ahozabal zentrua

- Logopedia
- Psikologia
- Arreta goiztiarra izapidetzen
- Integrazino sensoriala
- Psikomotrizitatea
- Terapia okupazionala
- Musikoterapia
- Laguntza psikoedukatiboa
- Snoezelen terapia

622 527 334

Olabarri 10, behea 5 · Igorre

ahozabaligorre@gmail.com

[/ahozabalzentrua_igorre](https://www.instagram.com/ahozabalzentrua_igorre)

Literatura txokoa

84, CHARING CROSS ROAD

Hau be irakurri behar dozu! Holan esan eustan nire bikoteak oingoan dakartsuedan liburu hau amaituterakoan. Eleberriak irakurtera ohituta nagoanez, desbardina dala abisau eustan, baina gustura irakurriko nebala baekian. Begi ona dauka nire bikoteak, bai.

Ba bai, hasikeratik dinot sano gustura irakurri dodala liburua. Eta bai, niretzat desbardina izan da liburu epistolar bat irakurtea. Eskutitzez osotuta dago-ta liburu osoa, egileak berak hasitako gutun bidalketa bat topauko dozue bertan.

Helene Hanff New Yorkeko "liburu zaharren zalea dan idazle txiro bat" zan. Garai haretan (Bigarren Mundu Gerrearen ostean) Estadu Batuetan liburu interesgarriak aurkitutea gatxa zanez, Londoneko 84

Charing Cross Road-eko Marks & Co. liburu dendara gutun bat bidali eban liburu batzuk eskatuteko, Ingalaterran liburuak aurkitutea askoz errazagoa zan eta. Dendako langilea zan Frank Doelex erantzun eutsan, eskatutako liburuak korreoz bialduz. Hemetik aurrera hogei urtez luzatu zan gutun trukaketa azaltzen da liburuan. Hasikera baten Helenek eta Frankek idatzitako kartak topauko doguz, baina gero eta jente gehiagok hartuko dau parte gutun bidalketan (Franken andreak, liburu-dendako beste behargin batzuek...).


Liburua laburtuoa da, eta hogei urtez bialdutako eskutitz guztiak ez doguz bertan topauko, baina batzuetan tarteetan falta diran gutunen mezuak asmau eta istorioa osotu beharrak be interesa emoten deu-

tso liburuari. Umorez kontautako istorioa da, gainera. Garai haretako egoeraz jaubetu ahal gara, gerra osteko errazionamentu garaia, Estadu Batuetako eta Ingalaterrako egoeren arteko desbardintasuna... eta garaiko eta arinagoko literatura batez be. Makina bat idazle eta liburu aitaututen dira (pena gitxi batzuk baino ez ezetutea!) korreo bidezko salerosketa horretan, gaur egungo Amazon baino efektiboagoa zana.

Helene Hanffen izakera bitxiak be ederto aberastuten dau kontakizuna, gutuna idazteko daukan moduak harrapau egiten zaitu hasikeratik, eskutitzak bata bestearen atzean gelditu barik irakurteko gogoia emoten dau.

Ba bai, bitxikeria ederra izan da niretzat liburu hau. Ez badakizue zer irakurri, egizue geldialditxo bat Charing Cross Roadeko 84ean!

Hektor Rodriguez



Helene Hanff
84, Charing Cross Road
Anagrama, 2019
120 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bi. 31tik zemendiaren 6ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 7tik 13ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 14tik 20ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketia:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tirada:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Herri txiki, erreka handi

Gobela, Getxo
 Europa Press.

"Uraren Euskal Agentziak jakinara-zo dauanez, TRAGSAri esleitutako obra fase bitan egin da. Lehenengoak, 400 metroko luzerakoak, Cristobal Valdéseko gainezkabi-dearen eta Avanzada zubiaren artean, 2013ko apiletik 2015eko abendura bitartean gauzatuak, 10,7 milioi euroko inbersinoa ekarri eban, eta bigarrenak, 362 metrokoak, Avanzada zubiaren eta Leioa etorbideko zubiaren artekoak, 2015eko martitik 2016ko abuztura, 5,5 euroko inbersinoa".
 URAk Gobela ibaiaren obrak amaitu ditu Errekaganen (Getxo) 16,2 milioiko inbersinoa egin ondoren.

Undabe, Ubide
 Ubide Press.

Jakinarazo dabenez, ONAINDIARI esleitutako obra fase bitan egin da. Lehenengoak 50 metroko luzerea dauka, Arabasoloko eta Errekamonako intxaurrondoan artean, eta 2022ko urri bigarrenaren 19ko 08:30etik 2022ko urri bigarrenaren 19ko 12:30era bitartean egin zan, ez dakigu inbersinoaren kostua, eta bigarrena, 50 metrokoa, 2022ko urri bigarrenaren 19ko 12:30etik 2022ko urri biga-

rrenaren 19ko 14:30era Anbetik eta ur baltzen araztegiko hodiaren artean. Ez dakigu inbersino horren zenbatekoa.
 URAk Undabe ibaiaren obrak amaitu ditu Arabasolon (Ubide) ez-dakigu-zenbateko inbersinoa egin ondoren.

Gero esan dagiela danok bardinak garala. Oin dala hiru urte eskatu zana, goiz baten egin da. Legarra beherago botateko, hau da, arazoa beherago sortzeako.

Bakotxak atera dagizala bere ondorioak.

AGURTZANE BENGOA ABASOLO

Arratia lurralde baztertua eta sakrifikaua

Klima aldaketearen gaineko Nazi-no Batuen 27. Biltzarra egingo da laster Egipton, COP27 deritxana. Ustez, larrialdi klimatiko eta ekologi-koari aurre egiteko neurriak hartzeako batzean dira azken 26 urteetan herri desbardineta-ko buruzagi eta arduradunak. Ha-ta guzti be, urte honeetan ez da gau-zatu egoereari buelta emongo de-utsan ezelango neurririk, guztiz kontrakoa, enpresa eta oligarken menpera ibili dira lanean. Hori

dala-ta, egoerea asko zaildu da.
 Hemen be, Arratiako bizilekuari eta ekosistemeari egiten jakozan eraso ekologikoak begi bistan daukaguz gaur egun:

Alde batetik, biodibersidade-rako funtsezko eremuak diran Aramotz, Mandoia eta landa au-zoak, autopista elektriko barrien eraikuntzeagaz suntsitu eta de-gradau guran dabiz. Zentzu gitxi baldin badauka holango energia garraio egitura kilometrikoak sortzea, momentu honetan da. Erregai fosiletan oinarritutako sis-temea errepetiduten dabizalako, barritagarriak aintzat hartuta. Red Electrica Española, Eusko Jaurla-ritza eta Bizkaiako Diputazioari emoten dau gitxi ardura deutsela Arratiako inguru babestuen gale-rea baldin badakar, besteak beste, babestuta dagozan hegazti nekro-fagoen populazioaren jaitsiera eragin daiken autopista hiltzaileak, Aramotzeko lurpeko uren kutsa-dura ekarri ahal daualako.

Horretaz aparte, epe laburreko monolaborantzian oinarritutako zugatz landaketen ustiapenak, barriro be gaitzen bat agertzea ekarriko deusku (banda marroia-gaz gertatu dan moduan). Honek erresilientzia murrizten dau eto-rriko diran arriskuak areagotuz; adibidez, suteen aurrean. Honen harira, esan behar da gure ingu-rua bereziki ahula dala, gaur egun sortzean diran amataezinak diran suteen aurrean (zugatz ahulak, landaketa jarraiak, biomasa ko-puru handia); jadanik 6. generazi-noko sute modura ezetuten diran horreen aurrean, esaterako.

Bestalde, aitzazekoa be bada gure ingurunea zeharkatzen da-ben uren kalidadearen txartzea. Emoten dau oso inguru polit eta xarmanta dala baina ez gara kontu-ratzen gure erreka zakarrontzi mo-dura erabilten doguzala, gaur egun be. Satzen kudeaketa negargarria hor be igarten da. Gehienbat plas-tikoak izaten dira uretara botaten dana. Oindino ez deusie inongo debekurik jarri plastikoaren erabi-lera masiboari. Zelan da posible, honeen jatorria erregai fosiletan oinarrituta egonda! Atoan geratu beharko litzateke!

Azkenik, eredu agroekologikoa bultzatu beharrean, gaur eguneko eredu intensibo eta urrunekoak ez deusku etorkizunean ber-takoon janari premina asetuko.
 Badaukaguz beraz, agintarieri ekintzak exijiduteko errazoiak.
 2022ko zemendiaren 12an, 12:00etan Arriagako plazan egin-go dan konzentrazinora konbida-tzen zaituegu.

Bertakoa, Arratia jagoten ez dauan instituzinoak planeta eta personon salbatzaile lez aurkez-ten dira gaur egun.
 Amalurra jagon!

MAKATZAK ARRATIako EKOLOGISTAK

ERETXIA



NURIA KORTA ALDAPE
 Maistrea

Eskolea

Elvira Zipitriaren eskultu-ra bat ipini dabe ointsu Donostian. Maistrea zan, metodologia barritzailea txertatu eban eskolan eta euskaltzalea. Euskeraz emoten ebazan esko-lak, baita gau-eskolak be, euske-rea galarazota egoan garaietan. Umeakaz euskal kantzak landuten ebazan, bidelaguna zan, irakatsi egiten eban eta ikasleei begietara begiratzen eutsen.

Gaur egun, euskerea galara-zota ez dagoanean ulertezina egiten jata ikasleak eskoletatik euskera maila hain bajuagaz ateratea. Euskal Herrian jaio ga-ranok eta irakasle izatea ebatzi dogunok ez daukagu erronka makala. Ruperrek esaten dau bere abesti baten: "inork ez zidan esan zein nekeza den euskaldu-na izatea". Bada bai, holan da era berean ederra dan moduan. Beste herrialde baten eskolak emotea errazagoa da hizkuntze-aren lanketea bermatuta dagoa-lako, baina gurean ez, gurean, euskeraz irakasteak lan handia suposatzen dau eta horretan irakasleak eredu izan behar gara. Eskolara sartu eta urten arte, irakasle guztiok euskera irakasle gara eta hori zoritxarrez ez da gertatzen. Estadu espainolean, adibidez, ezin dogu imajinatu gaz-telera mailarik ez daukan irakasle batek eskoletan ikasgaiak emo-

ten jardutea. Hemen bai, Euskal Herrian, (eta euskerea ikasteko aukera asko daukaguz) euske-ra maila eskasagaz be aurrera! Eskubideak eskatzen doguz, eta zilegia da, baina betebeharrak be badaukaguz eta betebeharre-tako bat kalidadezko hezkuntza eskaintzea da, barritzaileak izatea, bidelagunak izatea, kultura transmi-soreak izatea, herritarrak izatearen bide horretan bidelagunak izatea, emozinoen kudeaketen lanketan lagundutea... Horretarako euske-ra eredu ona eskaini behar dogu, berau dalako ikasketa prozesua garatzeko erabiliko dan tresna.

Ereduek be hor dagoz, eta ez dabe laguntzen. Zer dala-ta eskaini behar dira hiru eredu? Baina eskolak bakarrik ez dau euskalduntzen ezta kalidadezko hezkuntza bermatzen be. Hiru zutabe nagusi daukaguz: familia, herria eta eskolea. Hirurak buztar-tuz lortuko dira emaitzak. Beraz, danok daukaguz eskubideak baina baita betebeharrak be, ez daiguzan ahaztu. Hasi gaitzean behingoz instituzinoetatik, fami-lietatik eta eskoletatik euskerea errespetetan.

"Ikasten duguneko lekua da eskola. Edozein leku izan daiteke, hala nola etxea, kalea, mendia, itsasoa, parkea, zinema aretoa eta, beharbada, eskola", Joseba Sarrionandia.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XII). Kale berbakunea sustatu guran

AHOSKAREA

Hitanoa ikasi gura dabenen artean sortzean dan eztabaidetarikoa bat ahoskerea izaten da.

Testua: Gaur ez joguk ezertarako be astirik euki. Goizean erosketak egitera joan gozak. Eguerdian tailerrera joan behar izan joat kotxearen bila. Bazkaldu be ez joat ganoraz egin, iruntsi egin joat jana! Arrastian beharrera joan nok. Eta beharretik urten eta zautzuta ohera joan nok.

Ahoskerea: Gaur_eTXUk ezetako be_astirik_euki. Goxean erosketak iten joan_gozak. Eguerdian tailerrera joan behar_izin_joat kotxean bile. Bazkaldu_be_eTXOat ganoraz in, iruntsi_in_joat_jana! Arrastien beharrera joanok. Eta beharreti urten-da zautzute ohira joanok.

ASESORIA
Gorbeialde
 Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
 Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
 Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
 E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili~Kili
 Arropa eta Puntadura
 Lehendakari Agnere 10 - IGORRE (Bizkaiak)
 Tel.: 94 473 43 81

Olafxe
 Graduatinoak
 Ikusmen terapia
 Ikusmen gibusua
 Begiko tentsinoak
 Lentilen adaptazioak
 Kiroletarako betaurrekoak
 Salbino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaiak)
 Tel: 94 657 70 03 - olafxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
 -Bilatu dena jabetza
 -Baina dena proiektu
 -Salmentan zein alokairuan
 -Lurak (erakutsia, landat, basak...)
 -Etxebizitzak (pisoak, baserriak, etxak...)
 -Gardetza
 -Lanari komertzioak
 -Publizitateak
 -Bolonarioak
 -Erakiri berriak erakitzeko
 -Enfomak
 -Arkitekto-proiektuak
 -Bare diseinua
 -CEE eta IFE-ak
 -Hirigintza aholkularitza
 -Negozioak irekitzeko
 kudeaketa
 arratia
 INMOBILIARIA
 Unibertsitate Agnere 10, Salbino - Igore
 Telefonoa: 94 473 51 89 - 473 56 31 31
 E-mail: info@arratia.es
 Web: www.arratia.es
 473 205 103
 arratia@arratia.es

LUMATUTEN



CLARA LUJA AZPIRI

Gero eta gatzagoa da ikastea

Interneten historiak faszinetan nau. Zer egiten den biral, zerk marketan dauan belaunaldi bat, ze bideo edo joko gogoratzen diran mundu osoan... gazteen bizitzaren parte da. Hau azaltzen ona dan Zeelanda Barriko youtuber baten bideoak ikustean zeozertaz ohartu nintzan: gero eta gatzagoa da ikastea.

Berak inoan joko biral horreetara olgetan zala oin dala hamar bat urte, eskolako tabletean. Iruzkinetan beste askok aitatzen eben gauza bera. Makinak distrakzinoz beteta dagoz, eta zertarako ikasi olgetan ibili zaitezkeanean? Zertarako ikasi jakintza guztiak teklean eta Googlek segundo baten emon-go deusuzanean?

Zertarako ikasi... mundua aldatuten doa, egunero. Oin dala hamar urte normala zana gaur desagertu egin da eta batzuetan aurrekoaren kontrajarria da

norma. Ezer jakingo ez bagendu, hainbeste soinu, kolore eta produktu dituan mundu hone-tan zoratuko ginateke. Edo okerragoa dana, podereen olatuek markauko leukie gure bidea, gure bizitza. Honeek marionetak izango bagina lez mobidu gura gaitue, eta ikasi doguna da geure lekua topetako daukagun itsasargia.

Ikasteak mundua ulertzen laguntzen deusku, bai, baina besteak eta geure burua ulertuteko be balio dau. Ez dot esaten halako Mr. Wonderfulek esango leuken "ikasten badozu, dana lortu daikezu!" lango zerbaist, ez. Tiburoiez betetako urak dira ikasketak, eta batzuetan ezinezkoa da gura doguna lortzea: teoria bako liburuak (ezin bideorik bako orrialde bat izan!), larregizko aktibidadeengaitik denpora faltea, legeen etenbako aldaketea...

Baina ikasteak tsunami honeetan be uger egiteko baliabideak emoten deuskuz, zurrunbiloz betetako mundu honetan. Aprobetxau daiguzan ikasteko oindino geratzen jakuzan lekuak, horreek be desagertu baino lehen beste hainbeste gauzaren moduan.

ZERTZEAN



Anarko tipografia

KARLOS ARETXABALETA

Goizero bezala, oraindik berunezko betazalekin, konketako ispiluaurrean paratu naiz. Istant batez begiak itxi ditut eta gazte denborako bisaia irudikatu dut neure baitan. Begiak zabaltzerakoan, ordea, ispilua mila pusketan kraskatu da, bestelakoa baita aurrez aur dagoen lemazaina. Eskerrak goizeko kafeak itsasgarri lana egiten duen nire memoriaren xaflekin.

Hala, sarritan, urrutian, gauzez oroitzapenen itsasoan arrantzan ibili ondoren, denboragarrenean lortutako diru guztiarekin, premiazkoa dudan dosia lortu dut. Dosiarekin zuritu dut sudurra. Aitzakiekin zuritu dut gezurra. Diruarekin zuritu dut beldurra. Jolas hutsa balitz bezala, papelina hartuko dut, tentu handiz, eta hankaz gora jarriko dut barru(ko)aren hautsa, harik eta olerki perfektu batek nire barruak baretu arte.

Ez dok astoaren goxeko arrantzea, gero! olerki perfektuaren bila ibili bainaiz denbora askoan, portuan lehorreratu nahian. Ez naiz, ordea, horretan jaioa. Izan ere, portuko gidariekin, behin eta berriz trabak jarri izan dizkirate. Gaurkoan puntu eta komak [;] eta bi puntuak [:] patriketan zokoratu ditut. Badaezpada ere. Piratek darabilgun Anarko-tipografiaren abantailak ote?

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hego haize zakarra, sasoirako normala ez dan tenperaturea, iretargi barria, eklipsea... gaurko horoskopokoak normalean baino luzeagoak izan behar dira derrigor. Zeruan gauza asko dabiz gertatzen eta.

Horoskopoetan sinisten ez dogunok be, zeruari begira gagoz. Haize zakarra, sasoirako normala ez dan tenperaturea, sikatea... mendietan eta soloetan igarri egin behar da derrigor zeruan gertatzen dan guztia.

Gerran dagozanek be zerura begiratuko dabe gaur askotan. Gerra denporetan, zibilei heriotzea askotan etorten jakielako zerutik.

Zeruan idatzitakoak edo zerutik jausitakoak gure bizitza aldatu leike. Baina gu bitartean, burumakur bizi gara, ez lurrera begira, telefonoari baino. Lurra be ikusi egin barik.

Portzierto, gaur whatsapp jausi egin da pare bat ordu mundu osoan.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

BEDIA

Txitxi-burduntzia eta baba jana San Martin egunean

Erredakzinoa

Sasoi baten txarria hilteko eguna izaten zan zemendiaren 11, San Martin eguna, eta egun, leku askotan, San Martin izenpeko ermiten inguruetan batez be, txarrikia jaten ospatuten dabe egun hau. Horretarako aukerera egongo da Bedian. Izan be, Udalak eta Ganguren Mendi Taldeak txitxi-burduntzia eta baba jana antolatu ditue hurrengo zapaturako, hilak

12, frontoian. Bazkalostean erromeria egongo da.

Zemendiak 12, zapatua
 09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez plazatik urtenda.
 10:30etik 12:00etara, txitxi-burduntzia, herriko trikitilariak girotuta.
 12:00etan, mezea San Martin ermitan.
 12:45ean, bola jokoa eta zozketea.
 14:40ean, baba jana eta erromeria frontoian.



LEMOA

Inguruko baserrietako produktuak Lemoako XXIII. Nekazaritzako Elikagaien Azokan

Erredakzinoa

Lehen sektorea eta bertako produktuen zuzeneko salmentea bultzatzeko asmoz, Lemoako Udalak XXIII. Nekazaritzako Elikagaien Azokea antolatu dau zemendiaren 13rako, 10:00etatik aurrera, Arlonagusia plazan. Arratiatik eta Bizkaiko beste herri batzuetatik, Orozko, Otxandio eta Galdakao, esate baterako, hurreratuko dira baserritarrak, Lemoan, 20 salmahaitan bertako eta sasoiko produktuak eskaintzeko. Txarrikiak, barazkiak, frutak,

arrautzak, mermeladak, konserbak, Idiazabalgo gaztaia, ahuntz gaztaia, ezti, ogia, txakolina, sagardaoa, bermuta, euskal pastela, gozokiak, pateak, karakolak eta oilo hanburgesak egongo dira salgai Lemoan.

Perretxiko erakusketea
 Urtero lez, merkaduaren egunean, erakusketa mikologikoa antolatu dau Ganzabal Mendi Taldeak, inguruko basoetako perretxikoak ezetuten emoteko. Perretxikook, taldekoek eurek jasotakoak izaten dira.



LEMOA

Arratiako Caritasek antolatutako pobreziaren kontrako eguna Lemoan izango da aurten

Zemendiaren 12rako, arrastiko seiretan hasita, "Pobreekin pobre" lemapean, jaialdi bat antolatu dau Arratiako Caritasek Lemoako kiroldegian.

Erredakzinoa

Musikea, antzerkia, animazinoa, jantzaldiak eta txokolatea egongo dira besteak beste, hurreratzeko diranentzat. Batutako dirua, Caritasek Auzobizi Bizkaia gazte migratzaileen inklusiorako lan egiten dauan proiekturako izango da. Auzobizik, kale egoeran dagozan gazte migratzaileei etxea eta ikasketak eskaintzen deusez.

Dirua, zozketarako txartelen salmentatik bilduko da. Zozketan, Lemoako merkatariek emondako hamar bat lote zozketatuko dira. "Menuak jatetxeetan, eta okelategietan, ule-apaindegietan eta fruta-dendetan lote ederrak emon deuskuez" azaldu deusie BEGITURI Caritas Arratiatik. Caritasek jente guztiari egiten deutso jaialdira hurreratzeko deia "edozein erlijino-aitorpen" izanda be. "Zapatu arrasti horretan jentea Lemoara etorten animau gurako neuke ikusi dagian zenbat lan egiten dan. Eta jaialdia polita izango dalako" dinoe.

Seigarren edizinoa
 Sei urte dira Arratiako Caritasek bere gain hartu ebala Frantzisko eleiza buruak sortutako pobrezia egoeran dagozan personakazko sensibilizazio eta topaketa jardunaldia Arratiako herrietara ekarteko erronea. Lehenengo urtean, Arratiako parrokia guztietako kanpaiak jo ebezan ordu berean, eta dohaintzak jasoteko kutxa batzuk ipini ziran. Jasotakoa Harribide alkartearentzat izan zan, gazte migratzai-

leakaz lan egiten dauana. Bigarren edizinoan, afari solidario bat partekatu zan Igorren, saldea eta ogia, hain zuzen be, eta bildutako dirua Askabide alkartera bideratu zan. Hirugarren urtea be Igorren ospatu zan, Kultur Etxean musika eta jantza ikuskizun bategaz. Bizkaiko Caritasek Bilbon dituan janleku sozialetarako erabili zan dirua.

"Orduan pentsau genduan Caritas Arratia ez dala Igorre baka-rik, Arratia guztia dala eta egin

behar geunkela Arratia mailan. Horregatik oin urtean-urtean herri diferentean egiten dogu. Holan Zeanurin egin genduan laugarren urtean; igaz Diman egin zan, eta aurten, Lemoan".

Igaz Dimako frontoia bete egin zala eta aurten Lemoako kiroldegira "bastante jente" joatea espero dabela dinoe, "Arratia eta Arratiatik kanpokoa, pobreziaren kontra egin gura dauana, fededuna izan ala ez".



IGORRE

Eskolako aterpea zabalik egongo da zapatuetan herritarren aisialdirako

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 8an zabaldu zan eskolako patioan dagoan aterpe zarratua, herritarrek aisialdian, batez be eguraldi zakarra egiten dauanean, erabili ahal izateko. Holan, sozializetako beste espazio bat irabazi dau herriak, leku zarratu bat. Zapatuetan dago erabilgarri gura dabenentzat 11:00etatik 20:00etara.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

"Hitzarmen barik bakerik ez" aldarrikatu eben metaleko langileek Igorren

Metalgintzaren sindikatu gehienek deituta, dozenaka beharginek Ormazabal eta Tecnichapa lantegien atea blokeatu eben ordu batez urri bigarrenaren 25ean.

Erredakzinoa

Greba jardunaldien aurretik, negoziatzino mahaian presino egiteko atzen mobilizazinoa izan zan, Ertzaintzaren presentzia nabarmenagaz.

Bizkaiko metaleko beharginek hiru greba egun egin barri ditue, probintzia mailako hitzarmena hobetuteko helburuagaz. Aurretik, Bizkaiko Metaleko Enpresari Enkartegaz negoziatzen saiatu baziran be, ez zan akordiorik egon eta sindikatuak mahaia blokeatu salatzeke, "blokeatzen bagaitue blokeatuko doguz" kanpaina ipini eben martxan. Holan, negoziatzinoko atzen saioaren aurretik, langileak Igorreko Velatia lantegiko atean mobilizatu ziran goizean goiz LAB, CNT, ESK, CGT, CCOO eta UGT sindikatuak deituta.

Bertan mobilizatzeke errazoa da, Velatia taldearen jaubea dan Javier Ormazabal Echevarria Bizkaiko metalaren patronaleko zuzenda-

ritzako kidea dala; beraz, "hitzarmenaren blokeoaren ardurea" daukala azaldu eban Iratxe Azkue LABeko kideak. Beste alde batetik, CCOOeko Unai Orbegozok, negoziatzinoak aurrera egiteke "zehaztasuna" eta "edukiak dabezan proposamenak" behar dabezala azpimarratu eban. Horrezaz gain, hitzarmena erosahalmena mantentzeko bideratuta egon behar dala be azaldu eben sindikatuak eta erosahalmena defendiduko dabela aldarrikatu.

Ertzaintzak inguratuta

Mobilizazinoa istilu-kontrako ertzainez inguratuta egin zan eta honeen "jarrera gogorra" salatu eban Orbegozok. Azkuek barriz, Eusko Jaurlaritzeari eta Iñigo Urkulluri galdera zuzena bota eutsan: "Ze eskaintza egiten deutso Jaurlaritzek metaleko langileei?". Izan be, Lehendakariak patronalagaz argazkiak atera bitartean, langileengana Ertzaintza "erreprimidu, jipoitu eta mobilizazinoa oztopatzera" bidaltzen dabela azpimarratu eban.



IGORRE

Igorreko Udalak Foru Aldundiko Garapen Ekonomikoko sailari aurkeztu deutso Igorreko Industrialdea proiektua

Igorreko Udala, Igorre Industrialdeko enpresa ordezkariak eta Errota Fundazinoa, Foru Aldundiko Ekonomia sustatzeko Sailagaz batu ziran Igorreko Industrialdea proiektua aurkeztu eta finanziaizino bide barriak bilatzeko.

Erredakzinoa

Proiektu honen helburua debalautako gune bat berreskuratzea da, enpresentzat erakargarriagoa izan daiten.

Hainbat pausu emon dira asmoa martxan ipini zanetik. Bere momentuan, Igorreko Industrialdeko Enpresa Elkartea sortu eben industrialdeko enpresek, proiektuari izakera juridikoa emoteko, eta ondoren, Grupo Dayhe enpresek proiektu teknikoa garatu eban.

Lau fase

Lau fasetan egin beharreko lana da, eta 2.352.797 euroko aurrekontua izango dau. Illart Gumuzio Igorreko

alkatearen arabera, "gaur egungo pabiloien okupazinoa handia dan arren, bertan dagozan enpresak gehiago errotu, eta hutsik jarraitzen daben

pabiloiak betetea da asmoa. Udalak proiektuaren gidaritza eroango dauan arren, uste dogu funtsezkoa dala kolaborazino publiko-pribadua".



Juan Felix Gorostiaga, Angel Ramos, Illart Gumuzio eta Iratxe Goikoetxea.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aita Mari salbamentu humanitario itsasontziko tripulazinoa Arratian egongo da hileon



Mediterraneoan erreskateak egin eta ehundaka migratzaileei lagundu deuten Aita Mari itsasontziko tripulazinoa Arratian egongo da zemendiaren 7tik 12ra, Itsas Salbamentu Humanitario proiektua zabaltu eta finanziaizinoa lortzeako.

Erredakzinoa

Hori dala-ta, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldekoek hainbat ekintza antolatu ditue; tartean, Aita Mari dokumentalaren proiektua eta munduko arrozak jardura gastronomikoa.

Zemendiaren 7an bertan, 19:00etan, Arteako Basoan, defendatzaileen etxean, Aita Mari itsas salbamentuko kideak, Arratiako eragileakaz batuko dira proiektua ezetuten emoteko eta Arratiako enaldetik konpromisoak hartzeako. Hurrengo egunean, Institutuko ikasleei emongo deutsee proiektuaren barri Aita Marikoek. Horretarako dokumentala proiektu, azaldu eta bizi izandako esperientziak kontauko deutseez.

Barrio be proiektuako da dokumentala hurrengo egunean, zemendiak 9, 19:00etan, oingoan publiko orokorarentzat, Igorreko Lasarte Aretoan. Lemoan, hilaren 11n, 19:00etan, izango dira proiektua azaltzen Karabie Gaztetxean.

Atzenik, zemendiaren 13rako, domekea, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldekoek Munduko arrozak eta janariak izeneko jaia antolatu dabe. Goizean, Arteako plazan, Arratiako eragile edo kolektiboek munduko arrozak eta janariak prestatuko dabez, jai giroan. Errazinoak prezio sinbolikoan salduko dira eta batutako dirua Aita Mari proiekturako izango da.

Aita Mari

2017an ipini eben martxan Aita Mari Itsas Salbamentu Humanitarioko proiektua, Mediterraneoan migratzaileen egoera tragikoa ikusita, erreskateak egiteke. Horretarako itsasontzi bat zaharbarritu eben eta Aita Mari izena ipini eutsien. Urteotan, ehundaka lagun erreskatau ditue Mediterraneoako uretan.

Aita Mari dokumentala, Javi Julio zinemagilearen lana da. 2019an, itsasontzian joan zan Lesbos ugartera eta bertan grabautakoagaz egin eban Arratian ikusgai egongo dan dokumental hau.

AREATZA

Hiri Antolamenturako Plan Orokorra barriztatuko dau Areatzako Udalak

Edukiz betetako lan konplejua da HAPOa barriztutea eta prozesuak, gitxienez, 36 hilabete iraungo daua aurreikusten da. Udalaren arabera, prozesu honetan ezinbestekoa izango da herritarren parte-hartzea.

Erredakzinoa

Arau Subsidiarioen erredakzinoa eta aholkularitza lanak egiteko Hiritek Hirigintza Teknikariak SLP enpresea kontratau dau Areatzako Udalak. Kontratautako lanaren aurrekontua 211.629 eurokoa da eta Plan Orokorra egiteko zazpi fase egongo dira.

Lehenengo fasean, herritarren parte-hartze programea onartuko da. Horrezaz gainera, herriaren analisia eta hasikerako dokumentua egingo dira. Etxebizitzaren erabilereari jagokan azterketea egin, eta Ingurumen Azterketa Estrategiaren hasikerako dokumentua idatziko da. Bigarrenean, Ingurumen Azterketa Estrategikoa gauzatu da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak aurretik bialdutako dokumentuan oinarrituta.

Gero, hirugarren fase baten, bide emongo jako Aurrerakineko edukien inguruko herritarren parte-hartzeari. Udalak, Areatza Lantzen aldizkarian jakinarazotakoaren arabera, indar egingo dau etorkizuneko HAPOrako balizko lurralde eredu desbarden inguruko eztabaidan. Plan Orokorren oinarri moduan balioko daben erispideak eta helburuak zehaztuko ditu Udalak. Laugarren fasean, Planean hainbat alderdi sartu beharko dira. Alde batetik, informazioari, justifikazioari eta jasagarritasun ekonomikoari jagokiezan memoriak, bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren azterketea eta

ordenantzak eta planoak, esate baterako, eta bestetik, Hirigintza Inklusiboari jagokozan Ekintzen Eranskinen genero ikuspuntua eta mobikortasunari jagokozan alderdiak. Kontuan be izan beharko dira, Hizkuntza Eraginaren inguruko Azterketea eta paisaiari eta zarateari jagokiezan azterketak.

Ondoren, Plana Udalbatzak onartu beharko dau hasikera baten eta horren barri emon beharko dau. Herritarren parte-hartze aktiboa bilatuko dau Udalak, lurralde eredu auzarita geratuko dalako momentu horretan. Seigarren fasean, alegazioen barri emon eta aldaketak eta zuzenketak egin osten, Udalbatzak behin-behineko onarpena emongo deuto Planiari. Horren barri emon beharko deute herritarrei eta administrazio eta erakundeei.

Azkenik, Euskal Autonomia Erdigoko Lurralde Antolamenturako Batzordera bialduko da Plana, haren txostena jasoteko. Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailera bialduko da dokumentua, behin betiko onarpena jasoteko. Balizko aldaketa eta ebaluau bako ingurumenari jagokozan alderdiak errebisau osten, behar bada, planeko testua moldatuko da. Barrio Aldundira bialduko da bere behin betiko onarpena lortzeko. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Planaren araudia, eta horregaz indarrean sartuko da, 2006ko plana indarbakotuz.



ARRATIA, UBIDE

Zaborraren gaikako bilketea indartuteko eukiontzi gehiago eta kamioi bat erosiko ditu Mankomunidadeak

Arratia Garbia izeneko kanpaina ipini dau martxan Arratiako Udalen Manomunitateak (AUM) sare sozialetan, hondakinak gaika sailkatzeko garrantziaz jentea sensibilizetako asmoagaz.

Erredakzinoa

Sensibilizazio kanpaineaz gainera, Cimas enpresearen azterketaren ondorioak onartu ebazan AUMk urri bigarrenaren 26an, eta gaikako bilketea bultzatzeko, zaborra biltzeako eredu barri bat ipintea ebatzi dau. Horretarako inbersinoak egingo dira; bai eukiontzietan, bai kamioi bat erosten. Holan, leku gehiagotan eta sarriago batuko da, errazago ez daiten izan sailkatu barik botatea gaika sailkatuta botatea baino.

Hondakinak gaika biltzea da lehenengo eta ezinbesteko pausua birziklatzeko eta erretzen dan kantidadea murrizteko. Gaikako bilketeak hamarkadak daroazan arren, eta denpora honetan ingurumenagazko sensibilizazioa hazi dan arren, Arratian urte askoan ez da apenas igon gaika biltzean dan zaborraren porzentajea, eta ez da %30era ailegetan. Bizkaian, leku askotan antzera dabiz, baina sano gitxi da, "bai legee jagokienean bai Eusko Jaurlaritza eta Diputazioaren hondakinen Planetan agertzen diran helburuen aldean. Izan be, horren arabera, 2030erako, zaborraren %80a gitxi gorabehera batu behar da gaika" azaldu deuto BEGURI Aitor Uriguen AUMko Iraunkortasun Teknikariak.

Cimasen azterketaren arabera, Arratian gaikako bilketa eredu aildatu egin behar da: auzo guztie-

tan ipini behar dira eukiontziak, eta sarriago batu behar da eukiontzietakoa. Horretarako, eukiontzi gehiago eta beste kamioi bat erosi beharko ditu AUMk. "Ez da izan behar errezagoo dana nahastuta botatea. AUMk emon behar dau erraztasuna gaikako bilketea egiteko puntu guztietan: herrietan eta auzoetan. Horretarako, ipini behar dira kontenedoreak, personala be egokitu behar da eta kamioi bat erosi behar da" dino Uriguenek. Hori dana egin ahal izateko, dirulaguntzak eskatuko dira.

Organikoa

Arratian gaika gitxi biltzean dana organikoa da. Zaborraren %40-42 da eta %2a baino ez da biltzean. Horri bultzada handi bat emon behar jako eta horretarako plangintza eginda dagoala dino Iraunkortasun Teknikariak. "Espero dogu egingo dan kanpaineagaz jente gehiago apuntetea

marroira, herriguneetan eta auzoetan. Sarriago be jasoko da. Oin astean behin jasoten da, eta gure asmoa da astean gitxienez birritan batzea. Organikoa bultzatzea da helburu nagusia baina beste gaikako bilketak be bultzatu behar dira".

Eukiontzi marroira botaten ez dan organikoa errefusara doa. Holan, errefusa zaborraren %20 baino gitxiago dan arren, Arratian jasoten dan zaborraren %72 da. Eta errefusara doana, erre egiten da. Hondakinak erretzeak kutsadura sortezaz gainera, karuagoa da. Izan be, organikoa konposta bihurtzea 58 euro dira tona bakoitzeko eta erraustea, 103 euro tonako.

Laster Igorren bertan kudeatuko dala organikoa dino Uriguenek. Igorreko transferentzia plantan, konpostaje planta bat egin dabe eta oin probak egiten dabiz. Urtea amaitu baino lehen martxan egongo dala uste dau teknikariak.



IGORRE

Egoera ekonomiko eta geopolitikoaren inguruko berbaldia egingo dau Adrian Zelaia Igorreko Kultur Etxean

Erredakzinoa

Zemendiaren 17an, 18:30ean, Adrian Zelaia Ekonomia irakaslea, AskeBizi Arratien taldeak konbidautu, Igorren egongo da *Mundua bidegurutzan* izeneko berbaldia egiteko.

Berbaldian, gaur egongo egoeraren jatorria, 2022ko leher-

keta ekonomiko eta geopolitikoa eta etorkizuneko itxaropenak, eredu eta proiektu sozial eta ekonomikoak eta abar aztertuko dira. Metodologia gisa, Mendebaldeko elite korporatiboek azken hamarkadetan sentidu dabezan hiru mehatxu handiak deskribiduko ditu Zelaia: eredu ekonomikoa agortzea, indarra hartzean dabizan herrialdeen

mehatxua (Errusia eta Txina) eta Internet bidezko kontrol ideologikoen galerea, hain zuzen be.

Adrian Zelaia

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultadeko Ekonomia Aplikatu irakaslea da Zelaia. 2010etik Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeko aholkularia da Industria Aldaketari buruzko Aholku Batzordean, eta Ekai Group ikerketa zentroko presidentea. 2000-2009 bitartean, Mondragon korporazionoko Idazkari Nagusia izan zan.

El futuro de Europa liburuaren egilea da.

KARLOS ARETXABAleta

Durangoko Azokako Ahotsenean egongo da Karlos Aretxabaleta Sex-sua narrazino liburua aurkezten

Joan dan hilean Donostiako Elkarren aurkeztu eben Karlos Aretxabaletaren *Sex-sua* narrazino liburua. Bertan bederatziz narrazino erotiko batzean dira. Karlos Aretxabaleta filologo eta idazleak, Etxebarri BHI Institutuan egiten dau behar euskera irakasle lanetan eta Bedian bizi da.



Donostiako Elkarren egin zan liburuaren aurkezpen ofiziala. Beste inon aurkezteko asmorik?

Bai aurkezpen ofiziala egin genduan Donostiako Elkarren. Oso gustura egon nintzan. Beste aurkezpen formal bat egingo dot Durangoko Azokako Ahotsenean, abenduaren 7an, oker ez banago eguerdiko 12:00etan. Aukerea emon eusten eta oso pozik nago.

Liburuaren gainean berba egiteko aukera handirik ez jata sortu oindino, baina etorten diran guztiei, zelan ez, baiezkoa emongo deuset. Momentuz, zemen-diaren 7an egongo naz Igorreko Kultur Etxean. Jentea hurreratzan dan neurrian, liburuak arrakasta daukan neurrian eta eskariaren arabera, pozarren agertuko naz beste leku batzuetan be liburu aurkezten.

Dana dala, hau ez da zure lehenengo liburua.

Ez, oin dala urte batzuk atera neban poesia liburu bat, *Hitz margotuak* autoedizinoan ekoiztuta lagun batzuen artean, eta esperientzia oso polita izan zan. Geroa be egin neban saiakera txiki bat Internet munduan, Amazonen bitartez. Narrazino batzuk izan

ziran. Liburu honetan dagozan batzuk hortik datoz zelanbaist. Atzenean, begirada klinikoagaz, liburuan lotu dan produktua askoz be orraztuagoa eta finduagoa da.

Inoz ez naz ostondu eta idaztea gustetan jata eta idazten segiduteko esparantzea badaukat, eta momentu honetan *Sex-suaren* olatuaren aparretan nabil.

Badaukazu beste proiekturik esku artean?

Bai. Ni eskalatzailea naz, mendizalea betidanik, eta afizino horrek beti lagundu izan deusta bizitzan, bizitzan arazoak aurkezten diranean edo gure motxila personalak pisu lar daukanean eskaladeak eta mendiak niri beti lagundu deusta pisu hori arinduten. Ez dakit eskalatzaile eta mendizale guztien kontu bat dan, baina badago holarango zeozer. Orduan, narrazino erotikoakaz amaitu nebanean, edo behintzat, ziklo hori amaitutzat jo danean, hasi naz mendiko, eskaladako, alpinismoko, mendi lasterketetako kontakizunak idazten. Hori da proiektu barria.

Literatura erotikoa esan behar zenduana esanda dago?

Ezetuten dot jentea horretara dediketan dana eta itzelezko gaitasuna daukana sormenari eusteko, baina nik sentiduten neban aldatuteko beharra. Errelatu erotikoen mundua holan etorri jatan, halabeharrez sortu zan nire bizitzan eta gustura heldu neutsan, baina denporatxo bat idatzi barik ibili ostein, konturatu nintzan ausartu behar nintzala beste proiektu batzuetan, beste proiektu batzuei helduten. Mendi literatura beti gustau izan jata asko, piloa, eta kasu honetan, ez da mendi literatura baina liburu horretan bai agertuko dala mendia.

Pentsetan dot momentu honetan oso ondo moldatuten nazala kontakizun laburretan, hor topau dodala nire ahotsa. Narrazino luzeak oindino ez dira etorri, ez dira agertu nire bidean, baina laburrakaz polito konponduten naz, zergaitik aldatu?

Proiektu barrirako nahikotxo jente topau dot laguntasuna emoteko prest. Bide batez hemendik eskertu gura deuset euren bizi-



penak kontau izana narrazinoetarako. Ez deuset alderdi teknikitik helduko, ez da izango mendi literaturara egokitutako errelatu bildumea, gazte literatura baino. Mendian gertatutako pasadizoetatik abiatuta, gazteentzako kontuak sortu gura dodaz. Hau da, mendia nagusi, eskaladea, lasterketak, alpinismoa, himalaismoa... baina beti be giza alderdia eta gazte denporako abenturak kontuan hartuta. Asmoa da egungo gazteek ikusi dagiela, erretratuatan agertzen diran personak, ezagunak edo ezezagunak, -ze personaia ezezagunak be bada-goz liburuan- zelan zerotik hasi ziran, zelan gazte-gaztetatik etorri jakien mendizaletasun hori. Eta ahal badot elikatu gazte batzuen arima edo mendizaletasun sena, ba pozarren!

Oin hasi naz idazten. Hiru bat errelatu idatzi dodaz. Ez dot ipini eperik, ez kapitulu mugarik... beraz ez dakit noz kaleratuko dan. Bakarrik esan ahal dot personaia nahiko interesanteak agertuko dirala. Izan be, Alex Txikonegaz lotuta nago, bidai txiki bat egingo dot beragaz, eguna pasetan, baina pentsetan dot istorio politak kontauko deustazala, Edurne Pasabanen laguntzea be eukiko dot eta esperantzea daukat Eneko eta Iker Pourena be izateko. Alberto Iñurrategi, Juanjo Sansebastian, Irati Anda... euskal kirolari eta mendizale amorratuen kontuetan oinarritutako kontakizunak.

Erredakzinoa

BEGITURAKO kolaborazinoak egiten ditu, Zirhika eta Zertzean sailetan.

Aretxabaletak, 2019an Arratiako Kalenturak Lehiaketako Arratiako lanik onenari saria eta KaixoMaitia Lehiaketea irabazi eban *Ortizimugan larrua jo leike* kontakizunagaz.

Bederatziz narrazino batzean dira Sex-sua liburuan. Zelan sortu zan?

Hiru urte edo izango dira hasi nintzala kolaborazinoak egiten eta kontakizun erotikoen *corpus* ba sortzean. Kasu askotan propiedade nirea izanda, ebatzi neban gordeten joatea. Beste kasu batzuetan, propiedade beste batena zanean, egin nebane izan zan zuztarretik aldatu edo beste itxura bat emon. Orduan hasi nintzan nirea zan zeozer sortuten.

Liburuaren zirriborroa Elkarrera bialdutea egun batetik bestera ebatzi neban. Eurakaz hartu-emonetan nengoa irabazle suertau nintzalako KaixoMaitia txapelketan, eta ebatzi neban ez

nebala ezer galtzean eta bederatziz narrazinoko zirriborroa bialdu neutsen. Gero, eurak nigaz harremanetan ipini ziran eta hasi ginan alkarlanean gaur kalean dagoan liburu biribilduteko.

Gaia sexua izateaz aparte, badago beste ezer narrazino honeek lotzean ditutana?

Sexua izan lei ildoak, duda barik, kontakizun guztiek hori daukielako eta kanpotik ikusita hori da deigarriena. Baina nik esango neuke, gainera, guztiek daukiela freskotasuna eta protagonisten izakerea kontrapuntua dala. Ez dot segidu patroia bat narrazinoetan baina bai gura izan dot irakurleak erakarri eszenaleku desbardinetara. Hau da, Rafa Ugaldek esandako moduan, nire ustez errelatu erotikoen munduan, pasarte erotikoa atakia da eta beste guztia da errelatua. Hau da, kontakizuna armauta egon behar da, astiro jantzi, testuingurua jarri, personaia eskribidu, bizikerak, nortasunak... eta gero akabuan, pasarte erotikoak mundu horretan sartu.

Mendian gertatutako pasadizoetatik abiatuta, gazteentzako kontuak sortu gura dodaz.

Hau da, mendia nagusi, eskaladea, lasterketak, alpinismoa, himalaismoa...

...Eta ahal badot elikatu gazte batzuen arima edo mendizaletasun sena, ba pozarren

ZINUEMA

Euskerazko ikus-entzunezkoen eskaintza sustatzeko proba pilotua egingo da Igorren

UEMAk, Tinko Filmeak-egaz alkarlanean sortutako Zinuema egitasmoak, euskerazko 12 ikus-entzunezkoren egitarauan oinarrituta, eskaintza egonkor baterako esperientzia pilotua abiatu dau lau herritan: Igorren, Etxarri-Aranatzen, Azpeitian eta Ataunen, hain zuzen be.



Iñigo Arandia, Silvia Marañon, Eneritz Albizu, Iraitz Lazkano, Irati Arratibel eta Illart Gumuzio.

Erredakzinoa

Zinuemaren programa pilotuak, bihar-etzi eskaintza egonkorrago bat diseinatu ahal izateko, probatu gura dau egingarria ete dan etorkizun baten egitarau hau eskala handiagora eroatea.

Proba pilotua dala-ta, aurtengo zemenditik datorren urteko zezeilera arte Igorreko Lasarte Aretoan, *Zure platerean hasten da mundua*, *Izurde mutikoa*, *Lupin III*, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala, *The*

Snow Queen, *Nire zirkua*, *Black is Beltza II: Ainhoa, Gabi, Emakumea* filma laburrak (bost laburmetrai), *Elkano*. *Lehen mundu bira*, *Golazen* telesailaren atzen kapitulu eta *Irabazi arte* bigarren denporaldiko lehen kapitulu proiektuak dira.

Lanak ikusteko, saio bakotxeko sarrerez gainera, bonu sistema bat egongo da, 20 euroren truke 10 eduki malgutasunez ikusteko aukerea eskaintzen dauana. 1.500 bonu inprimiduko dira, eta sarrerak txartelakaz trukatu be-

harko dira emonaldien aurretik. Bonua erosten dabenek sarrera merkeagoa izango dabe eguneko txartela erosten daben norbakoek baino.

Emonaldien ostean ikusleen eretxia jasoteko balorazino inkestak egingo dira. Erantzuten daben guztien artean 55 hazbeteko wifi telebista bat zozketatuko da.

Zine eskaintza urria aretoetan

Zinema aretoetan dagoan euskerazko eskaintza urriari erantzuteko asmoz sortu da Zinuema. Egitasmoaren aurkezpena, urri bigarrenaren 20an egin zan Donostian eta bertan egon ziran Iraitz Lazkano UEMAko presidentea, Tinko Filmeak-eko Iñigo Arandia, eta egitasmoan parte hartuko daben udalen ordezkariak: Igorreko alkatea Illart Gumuzio; Etxarri Aranatzekoa, Silvia Marañon, eta Azpeitia eta Ataungo kultura zinegotziak, Eneritz Albizu eta Irati Arratibel, hurrengo hurrengo.

UEMAko presidentea, Euskal Herrian kultura konsumoaren gaineko azterlanak azaldu ebazan. "Atzen ikerketek argi erakutsi dabe euskerazko kultur konsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoala. Euskal Herri osoan gertatzen da hori, baita udalerr

euskaldunetan be. Gazteen ikus-entzunezkoen konsumoari buruz UEMAk argitaratutako ikerketeak be azaldu arazo dau pantailetan erderazko edukiak ikusten dituela batez be nerabeek, eta ikusten gabiz horrek eragin nabaria daukala hizkuntza ohituretan" esan eban. Eta konsumoan eragiteko, ezinbestekotzat jo eban eskaintzea egotea eta aisialdia euskeraz bizitzeko aukerak sustatzea. Zinuema ekimena, helburu horretarantz beste pausu bat egiteko sortu da.

Tinko Filmeak-eko Iñigo Arandia, Pantailak Euskaraz herri mobimentuaren datuak azaldu ebazan. Bere esanetan, bertako ekoizleek sortzean dituen euskerazko filmak 2 edo 3 izan daitezke urterik hoberenean, eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoan Zineuskadi erakundeak 10-12 film bikoizten ditu urtean. Danak edo ia danak, umeei zuzendutakoak.

Eskaintza bermatu ohituretan eragiteko

Illart Gumuzio Igorreko alkateak udalerrietan egiten dan kultur programazioaren gaineko gogoetea egin eban Donostian. "Beti sustatu gura izan dogu herritarrek euskerazko kulturaz gozatutako aukerea izatea, eta,

horretarako, urte osoan egiten dogu ahalegina, ekintzak eta emonaldiak antolatuten. Ikus-entzunezkoen arloan, ez da oso handia euskeraz sortutako eta bikoiztutako lanen kopurua, eta, horregaitik, garrantzitsua da aha-lerin konsziente bat egitea euskeraz egin diran lanak eta itzultitakoak batu eta gure herrietara ekarteko" esan eban. Bere ustez, euskerazko ikus-entzunezkoen eskaintza bermatu ezker, herritarrentzat ez da hain ezohikoa izango euskerazko filmak eta dokumentalak ikustea.

Zinemako konsumo ohiturak guztiz irauli dituten *streaming* plataformei buruzko datuak be emon ebazan Tinko alkarteko kideak. Filminek, esaterako, euskeraz 65 eduki eukazan 2021eko urri lehenengoan, eta urtebete geroago 83 daukaz; Netflixek 3 eukazan igaz, eta 44 daukaz aurtan; Disney+ kateak ez dauka eduki bat bera be euskeraz. Azken urtean euskerazko eskaintzea igon egin da ikus-entzunezko lege barriaren eta Pantailak Euskaraz eta holango mobimentuen presinoari esker, baina plataforma honeetan eskainitakoa ez da euskerazko aisialdi normalizatu batek behar leuen bestekoa. Horregaitik dira beharrezkoak holango ekimenak.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

MENDIA

Tailandian jokatuko dan mendiko lasterketen munduko txapelketan izango da Onditz Iturbe

Erredakzinoa

Zemendiaren 3tik 6ra jokatu da Atletismo Federazioak antolatutako Munduko Trail Running Txapelketea Chiang Main (Tailandia). Onditz Iturbek modalidade bitan hartuko dau parte: *Classic Up and Down* 11,2 kilometro eta 441 metro desnibeleko lasterketan, zemendiaren 6an, eta *Uphill* modalidadean, 8,5 kilometro eta 1.014 metro desnibelekoan, 4an. Beste proba bi be egongo dira, Trail Running 40 kilometrokoa eta Ultra Trail Running 80 kilometrokoa. Hogeta hamairu atleta aukeratu ditu Espainiako Federazioak txapelketan parte hartzeako, 17 gizon eta 16 andra; tartean, Aritz Egea

urretxuarra, Maite Maiora mendararra eta Iturbe igorreztarra.



PELOTEA

Olaetxea, Agirre eta Meabek irabazi dabe VIII. Orbela Txapelketea

Erredakzinoa

Finalurreko jardunaldi bi eta jai giroan jokaturako finalen ostean Irurtzuna joan zan nagusien txapela, Zestoara andrena eta etxean geratu zan kadeteena, Meaberen garaipenari esker. Txumulu Xueta Pelota Klubak zortzigarrenez antolatu dau aurtent Udagoieneko Orbela Txapelketea. Torneo berezia da, kiniela formatuan jokaturen dalako. Hau da, jokalar bi izan barik, hiru dira pelotalekuan batzean diranak eta tartekatuta jokaturen dabe partidu bardina. Finalak urri bigarrenaren 28an jokatu ziran eta hiru txapeldun egon ziran guztira. Nagusien finalean Erkiaga II zeanuriztarra, Rekalde dimoztarra eta Olaetxea irurtzundarra lehia tu ziran eta atzen hau izan zan hogeta bi tantuetara heldu zana.

Erkiaga II eta Rekalderi alde handia aterata irabazi eban gainera, hamabi eta hamaika tantu lortu ebezan hurrengoz hurrengo. Andren finala barriz Zabaleta leitzarraren, Barrocal bergararren eta Agirre zestoarraren artean jokatu zan. Txapela lortzeako lehia estua egon zan Agirre eta Zabaletaren artean baina atzenean, Agirre heldu zan hogeta bi tantuetara, Zabaleta hogeta bategaz itxita. Barrocalek ostera, bederatzit lortu ebazan. Kadeteen finalak izan ebazan Dimako jokalar bakarrak, Txumulu Xueta klubeko Rekalde II eta Meabe, hirugarren jokalaria Markinako Zearra izan zan. Lehia estuko partidua izan zan hau be, markagailuan alde txikia manteniduta. Txapela Meabek eroan eban baina Rekalde eta Zearra oso hurbil geratu ziran, hemeretzi tantugaz bardinduta.



Rekalde, Erkiaga II eta Olaetxea.

AZKOREA

Hernia batek Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusitik kanpo itxi dau Aitzol Atutxa

Erredakzinoa

Aitzol Atutxa azkolari dimoztarrek Sherpa txapelketako finalurreko kanporaketea jokatu behar eban urri bigarrenaren 22an baina hernia bat eukala eta, dudak egozan. Iker Vicenteren parte-hartze barik, dimoztarrek zemendiaren 13ko finalera heltzeako aukera gehiago eukazan baina barri txarra kanporaketea jokatu aurreko egunean jaso eban Atutxak, medikuak lehiatzeko prest ez egoala esanda. Holan, medikuaren gomendioa jarraitu eta txapelketa honetatik be kanpo geratzea ebatzi eban. Ez da atzenaldian lesino bera dala-ta itxi behar izan dauan lehen txapelketea. Izan be, urrietan Bizkaiko



Binakako Txapelketatik eta Euskal Pentatloitik kanpo geratu da, orduan "azkar errekupeetea" espe-ro baeban be.

FUTBOLA

Lemoako Harrobi bigarren postuan dago

Erredakzinoa

Lemoako Harrobi taldeak taularen goiko postuetan segiduten dau. Arratiako andrazkoen A taldea hamaikagarren da sailkapenean eta gizonezkoen Arratia A eta andrazkoen Arratia B bederatzigarren postuan dagoz, gizonezkoen Arratia B ostera jatsiera postuetan dago. Lemoako Harrobik, urri bigarrenaren 29an, zapatu arrastiz Loiu A taldearen kontra etxetik kanpo jokaturako partidua 0-2 irabazi eban, denporaldi honetan Lemoako taldeak oindino ez dau partidu bat bera be galdu. Zazpi jardunaldiren ostean bigarren postuan dago Lemoako Harrobi 17 puntugaz. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau hilaren 5ean, zapatua, arrastiko 16:00etan Gernika Sporting A taldearen kontra.

Arratia

Gizonezkoen Arratia Ak urri bigarrenaren 29an jokatu eban Etxebarri A taldearen kontra etxetik kanpo eta irabazten hasi arren 2-1 galdu eban talde arratiarrak. Zazpi jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago Arratia 10 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Arratia Ak Sondika A taldearen kontra hilaren 5ean, zapatua, arrastiko 17:45ean. Gizonezkoen Arratia Bk be urri bigarrenaren 29an jokatu eban etxetik kanpo, Orozkon, Atxulaur A taldearen kontra eta bina bardindu eban Arratiak. Zazpi jardunalditan partidu bat irabazi eta joan dan astegoi honetan jokaturakoa bardindu dau Arratiak. 4 puntugaz jatsiera postuetan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau zemendiaren 6an, domekea, 17:15ean Loiu A tal-

dearen kontra. Andrazkoen Arratia Ak urri bigarreneko hirugarren astegoieneko deskantsuaren ostean, hilaren atzen astegoienean bana bardindu eban Pradejonen kontra etxetik kanpo jokaturako partidua. Zazpi jardunaldiren ostean zazpi puntu ditu Arratiak eta hamaikagarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau DUX Logroño B taldearen kontra hilaren 5ean, zapatua, arrastiko 15:30ean. Andrazkoen Arratia Bk ostera urri bigarrenaren 30ean, domekea, jokatu eban etxetik kanpo Plentzia taldearen kontra eta 2-1 galdu eban. Bost jardunaldi jokatura Arratia B bederatzigarren dago sailkapenean 7 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Pauldarrak B taldearen kontra hilaren 5ean, zapatua, gaueko 20:00etan.

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

MENDIA

Bide onetik doa Lemoatx Trail mendi lasterketarako izen-emotea

Oindino hamabost egun falta ziranean izen-emotea zarratuteko, izen-emotea bide onetik joiala azaldu eutsien BEGIturi Ganzabal Mendi Taldeko antolatzaileek.

Erredakzioa

Lemoatx Trail lasterketea, Bizkaiko mendi lasterketen ligan sartuta dago eta zemendiaren 20an jokatu da Lemoan. Lasterketa luzeak 24 kilometro ditu eta laburrak 16 kilometro. Mendi martxa bi be egongo dira: bata lasterketa luzearen ibilbide bera dauka eta besteak, 8 kilometro.

Modalidade bakotxean 250 personak emon leikie izena gehenez, eta igaz 1.000 persona batu ziran guztira. Onditz Iturbek eta Imanol Goñik irabazi eben 2021eko lasterketa nagusia. Ordutegiari jagokonean, mendi martxalariak izango dira lehenengoak abiatzen, 08:00retan; gero, 09:15ean, lasterketa luzeko lasterkariak urtengo dira; 10:00etan, lasterketa laburreko lasterkariak txandea izango da eta 10:15ean, martxa laburreko partaideena.

Mendiko materiala eta taloak salgai

Lasterketariei animetako jente asko hurreratzen dala Lemoara dinoe

antolakuntzatik. "Goizeko lehenengo orduetan, jentea mendira joaten da korrikalariak animetako, eta berotasun eta hurbiltasun horrek, giro ederra sortu eta bultzada handia da kirolarientzat. Herrian be ikuskizun handia izaten da eta txaloak entzuten dira kaleetan zehar". Ez bakarrik Arratiatik; Gipuzkoatik, Arabatik, Nafarroatik, Euskal Herriko iparraldetik, eta baten batzuk Kantabriatik eta Andaluziatik be hurreratzen dira egun horretan Lemoara. Izan be, Lemoatx Trail lasterketeak izena hartu dau eta mendi lasterkariek markauta daukie euren lasterketa egutegian.

Giroa lasterketatik haragokoa be izango da aurtan; taloak egongo dira salgai, eta jatekoa saltzean daben furgonetak be egongo dira. Gainera, mendiko materiala, kamisetak, txapelak eta sudaderak be salduteko salmahai bi egongo dira.

Antolatzaileek animau gura dabe jentea Lemoatx Trailen parte hartzera, galapan eginda edo egin barik, beti be "naturea errespetau eta mendiak zainduz, luzaroan disfrutau ahal izateko".



PELOTEA

Egiako Juanito Alvarez Txapelketea irabazi dabe Aldaik eta Mendizabalek

Urri bigarrenaren 30an jokatu zan finala Egiako pelotalekuan eta Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek 22-8 irabazi eutseen Uxue Oses eta Maddi Barrocaleri.

Erredakzioa

Markagailuak erakusten dauan moduan, Aldaik eta Mendizabalek erraz gainditu eben partidua eta aurkariak ondo hasi baziran be, laster galdu eben hauspoa. Gainera, dimoztarrak asmatu egin eban errematean eta min handia egin bere sakeagaz; izan be, bost tantu lortu ebazan holan. "Hasikeratik nahiko konzentrauta sartu ginan partidura eta azkenean erraz amaitu genduan. Ni konfiantzaz egon nintzan, tantu asko amaitzen, aurreko jokoa egiten... Atzenaldian Lau eta Erdirako entrenetan gabizanez, horrek konfiantzea emoten dau binakakoan aurrean tantuak amaituteko. Sen-



sazinoak oso positiboak izan dira. Besteek ezin izan eben ezer egin horren aurrean. Oso pozik nago txapelketa hau irabazi izanagaitik,

horrek beste txapelketetarako be konfiantzea emoten deustalako" azaldu deutso BEGIturi Amaia Aldaik.

PELOTEA

Ekhi Ziarrusta txapeldun Ehiztarien Kopan eta txapeldunorde Tornosolo Trinkete Txapelketan

Erredakzioa

Ekhi Ziarrusta dimoztarrak Inhar Ugartegaz batera XIX. Ehiztarien Kopako finala irabazi eban urri bigarrenaren 31n Malik Niang eta Antton Luroren kontra 40-31 irabazita Donibane Garaziko trinketean.

Abadiñon txapeldunorde

Kepa Arroitaurregi III. Memorialaren eskuz banakako finaleko partidua 33-40 galdu eban Ekhi Ziarrustak, askotan bere bikotea izandako Inhar Ugarteren kontra, Abadinoko Tornosolo trinketean, urri bigarrenaren 28an.

Ipar Euskal Herriko zirkuituan dabiz dimoztarra eta getxoztarra

eta askotan jokatu dabe alkarre-gaz. Abadinoko trinketean barriz, buruz buru neurtu ebezan indarrak txapelketako finalean eta Ugarte nagusitu zan.

Finalera zuzenean sailkatu zan Ugarte; Ziarrustak barriz, finaler-

dikoa jokatu behar izan eban, Santamariaren kontra. Dimoztarrak 40-13 irabazi eban emozino bako partidua, baina finalerdikoan nagusitasunez irabazi arren, ezin izan eban gauza bera egin Ugarteren kontra.



Inhar Ugarte eta Ekhi Ziarrusta berdez.

Onetiaio Harri lasterketarako

Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza

Datxilergoa

Hezwuntza Zinloa

2 urtatu 13ra

KONTZERTUA

Eneritz Furyak musikariak kontzertua emongo dau Lemoan

Erredakzinoa

Zemendiaren 11n, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, Eneritz Furyak egile, abeslari eta musikariak kontzertua eskainiko dau. Euskal musikako ahots barri honek Frantzia, Belgika, Alemania, Suitza, Italia, edo Katalunia eta Galiziako oholtzetan jo dau. Baita, euskal geografia osoan be. Eneritz Dueso Domenechek (Irun 1993), Eneritz Furyak, Kasernarat taldeagaz aurkeztu ebazan lehenengo aldiz berak idatzitako kantuak. Gero,

bakarkako ibilbideari ekin eutsan eta 2017an kaleratu eban bere lehen diskoa, *Eneritz Furyak*. Osean, *Zaldi zuria/Maskara* (2018) eta *Emadan* (2019) etorri ziran. Aurreko lanetik sano desbardi-na da *Emadan*. "Estilo aldaketa honek elektronika industrialera edo R&B-ra gerturatzen gaitu, Eneritzen beste lanetan dabor-duko ageri ziran slowcore edo post folk aztarnak alde batera itxi barik" azalduten dau bere webgunean. Kantuen letrak abstraktuak dira, interpretazino desbardinei aukerea emoteko.



IKUSKIZUNA

Zurrunka antzerki taldeak *Gure kanoa* txotxongilo ikuskizuna ekarriko dau Lasarte Aretora

Erredakzinoa

Zemendiaren 4an, 18:00etan, izango da ikuskizuna, bazki-deentzat doban. *Gure kanoa* antzezlanak Senegalgo familia arrantzale bateko Abba umearen istorioa kontetan dau. Zurrunka Teatro konpainia txotxongilo eta itzalen antzerkian espezializautako konpainia da. *Gure kanoa* lanaren gidoia, Josu Camara, Eñaut Gorbea eta Odei Arregirena da. Txotxongiloak Eñaut Gorbeak sortu ditu eta berak eta Odei Arregik manipuletan ditue, Josu Camararen zuzendaritzapean.

Sinopsia

Abba, Senegalgo arrantzale familia baten jaiotako umea da. Berak ondo daki Maam Kumba kantuan hasten danean bere bihotzean bizi dan Arrain Argitsua mila kolorez biztu eta, herritarrek arrantzatu dagiezan, arrainak erakarten dituala. Baina zoritxarrez itsasontzi handiek bizimodua eraldatu deutsee, Maam Kumbaren bihotzeko arraina sare artean harrapauta, mutu gelditu da eta arrain barik geratu da itsasoa. Hori dala-ta, Abbak ezustekoz betetako bi-daia luzea egingo dau.



LIBURUA

Maria Gorosarrik bere *Contra la banalización del feminismo* liburuaren aurkezpena egingo dau

Andraizeak antolatuta, zemendiaren 3an, 18:30ean, *Contra la banalización del feminismo* liburuaren aurkezpena egingo dau egileak berak Dimako Abaroa aretoan.

Erredakzinoa

"Andra izatea ez daiten izan gaitasun barik itxitako bizitza bizitea, ezta heriotz bortitza izatea be, merezidu dauan bizitza bat izatea baino" dino egileak liburua zergaitik idatzi eban azalduteko. Izan be, egilearen arabera, inor ez danean ez-feminista moduan agertzen, feminismoak ez dau aprobetxau momentu historiko hori, andren eskubideen atzerapausuak galarazoteko egiturak sortzeako. Gorosarrik defendiduten dau beharrezko dala feminismoak alde batera ez ixtea konpromiso kolektiboa, eta ez, feminismoaren benetako subjektuari buruzko eztabaida akademikoetan arreta ipintea, edo Hollywoodeko genealogia faltsuetan, eta ez dala galdu behar feminismoa banalizatzen daben beste eztabaida edo gai batzuetan.

Maria Gonzalez Gorosarri
Maria Gonzalez Gorosarri (Durango, 1978) Zuzenbidean eta Kazetaritzan lizentziatua da, eta prensa, historia eta mobimentu

politikoen gaineko hainbat ikerketa argitaratu ditu. 2007an, Rosario La Dinamiterari buruzko dokumental bat zuzendu eban, Errepublikaren aldeko miliziar honeri egindako alkarrizketa baten oinarritua. 2009a harrezkeroztik, Durango 1936 Kultur Elkarteko presidentea da, eta Errepublikeari, Gerra Zibilarri eta lehen frankismo sasoiko garbiketa politikoaren gaineko ikus-entzunezko artxiborako testigantzak biltzean ditu.



IKUSKIZUNA

Musika eta poesia errezitaldia Igorreko liburutegian

Erredakzinoa

Bilboko Mala letra/Letra txarra eta Igorreko Poesia hegalaria taldeek musika eta poesia errezitaldi bat eskainiko dabe zemen-diaren 11n, 20:00etan, Igorreko liburutegian. Mala Letra/Letra txarra taldea 2016an sortu zan Bilbon, Javier Arnaizen poesia, Jose Ignacio Maestreren abesti eta Alberto Luis Egiaren moldaketakaz, poesia eta musika errezitaldi-kontzertuak emoteko. Harrezkeroztik, hamaika errezitaldi eta kontzertu eskaini ditue Euskal Herrian eta Euskal Herriatik kanpo; tartean, Javier Arnaizek Manchesterren,



Liverpoolen eta Londresen egin-dako emonaldiak, barbarako. Pablo Cabañas, Ana Juez eta

ANTZEZLANA

Guatemalako andra talde baten antzezlan egongo da ikusgai Arteako Basoan



Erredakzinoa

Zemendiaren 12an, 18:30ean, indarkeria bizi izan daben Guatemalako andren Las Poderosas Teatro kolektiboak *In la K'ech* lana antzeztuko dabe Arteako Basoa defendatzaileen etxean. *In la K'ech* esakereak, "zu beste ni bat zara" esan gura dau maien hizkuntzan eta agurtzeko erabilten dabe. Zu beste ni bat zara, ni beste zu bat nazan moduan. Ez dago bereizketarik, ez dago alderik, guztion artean bat gara. Gizakiak, animaliak, landareak... bat gara unibersoagaz. Las Poderosas kolektibokoek, euren biografietan eta historian oinarritutako antzezlanak egiten ditue, euren esperientziak transmitidu eta egunerokoan alkarre-ri lagunduteko helburuagaz.

Irune Elexpe Poesia hegalaria alkartekoek be hartuko dabe parte emonaldian.

BERTSOLARITZEA

Igor Elortza eta Unai Iturriaga Arantzazuko bertso-afarian izango dira

Erredakzinoa

Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak, sanmartinetako X. bertso-afaria antolatu dau zemendiaren 11rako. Afaria, 21:00etan izango da Arantzazuko Herriko Tabernan eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolari durangarrek botako dabez bertsoak. Afarirako txartelak Arantzazuko Herriko Tabernan eta Montero tabernan erosi daitekez hilaren 10era arte, 20 euroko prezioan.

Bertsolariak

Igor Elortza (Durango, 1975). Bost bider izan da Bizkaiko txapeldun, eta Euskal Herriko hiru finaletan lehiatu da. Kultur eragiletzan be jarduten da: Bertsozale Elkarteko eta Plateruena Durangoko Kafe Antzokiko zuzendaritzakide izan da, eta Euskal

Herri mailako zein tokiko talde eta alkarte ugarigaz alkarlanean hainbat ekimenetan hartu dau parte. Bertsogintzea barritu daben egitasmoetan ez ezik, bestelako adierazpide artistiko batzuetan be jardun izan dau: bertso doinu barriak, musika taldeak, bertsotramak, antzerki eta telebista gidoigintza...

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza (Durango, 1974) bertsolaria, idazlea eta abeslaria da. Bi aldiz izan da Bizkaiko txapeldun. Ezagunak izan dira Elortzagaz izandako finalak. Bertsolari Txapelketa Nagusian sei aldiz izan da finalista eta 2005ean txapeldunorde gelditu zan. Batez be irudimenean jo dau goia; hori da Iturriagari aitutzen jakona, batez be. Txapelketatik kanpo be hamaika saio egin ditu, batzuetan bertsoa eta literatura buztartuta.



UDAGOIENeko OSTERA

Niko Etxart eta Kerobia Igorren izango dira Udagoieneko Ostera ekimenaren barruan

Zemendiaren 12an, 20:00etan, Niko Etxart eta Hapa Hapa taldeak eta Kerobiak Igorreko Lasarte Aretoan joko dabe.



Xabier Arauzo, Joseba Illarramendi, Jasone Mendizabal, Lorea Bilbao eta Agus Barandiaran.

Erredakzinoa

Jon Martinez "Txiki" bakarlariak ipiniko dau umorea emonkizunean. Udagoieneko Ostera, Euskaltzaileen Topaguneak Bizkaiko Foru Aldundiagaz alkarlanean antolatuten dauan ekimena da, kulturea eta euskerearen erabilerea sustatzeko. Lorea Bilbao Ibarra, Euskara,

Kultura eta Kirol saileko foru diputaduak, Jasone Mendizabal, Euskaltzaileen Topaguneko zuzendariak eta Korrontzi taldeko Agus Barandiaran, eta Lintontauneko Joseba Illarramendi musikariek egin eben ekimenaren aurkezpena, urri bigarrenaren 17an. Bilbaoren esanetan, "kulturea sustatu eta hauspotzea Aldundiaren apustu

estrategikoa da. Izan be, kultur jardurea herri izakerearen ezinbesteko osagaia dala iruditzen jaku, eta jakin badakigu herritarrek kulturearen beharra daukien neurri berean behar dauala kulturearen sektoreak erakundeen sostengua". Aurtengo edizinoak, Musikaren Katebegiak dauka izena eta sasoi desbardineta musikearen arteko transmisinoa erakutsi gura dau. Udagoieneko Osterak 4 emonkizun izango ditu eta musikea eta umorea buztartuko dabe ikuskizunek. Bilbon, Igorren, Zallan eta Berrizen izango dira eta. emonaldi bakotzak, 45 minutuko zati bi izango ditu. Talde bakotzak bere set propioa eskainiko dau.

Niko Etxart eta Kerobia Igorren

Errobi taldeagaz batera, euskeraz abestutako rock musikearen aurrendarietako bat da Niko Etxart. Proiektu musikal ugariren sortzaile, Niko Etxartek euskal rockaren zimenduak ipini ebazan *Euskal Rock and roll* lango kantutakaz 1970eko hamarkadan. Bakarkako lau disko eta Minxoriak taldeagaz lan bi kaleratu ebazan 1979 eta 1990 artean. Hapa Hapa taldeagaz barriz, beste disko bi: *Gili gilikatzen haut* eta *Minuette*. Etxartek, rockaz gainera, musika tradizionala be landu dau.

Kerobia taldea 2001ean sortu zan Iruñean. Sei disko kaleratu ebazan 2014ean taldea desagitea ebatzi eben arte. 2021ean barriz alkatu eta *Hilak* diskoa atera eben, taldearen ibilbideko zazpi garrena. Kerobiak egiten dauan pop-rock dotore eta zainduak kritika espezializauaren oneretxia eta milaka jarraitzaileen goresmena jaso dau urte guztiotan.

DUNBA

Eskola barria

Zeanuriko eskolako 6. mailako ikasleak

Pasau dan ikasturte amaieran, eskolan obrak egongo zirala baieztatu zan. Obrak egin ahal izateko, eskola aldaketea egin beharra egoan. Aldaketa horretarako eskolako material guztia batu, klasifikau eta trasladau beharra egoan. Horretarako, 5. eta 6. mailako ikasleei material hori guztia Arkotxako eraikiner (Haur Hezkuntzako ikasleentzat) eta Kultur Etxera (Lehen Hezkuntzako ikasleentzat) trasladetako laguntasuna eskatu jakien. Izan be, horreek izango ziran eskolako eraikinak.

Eskolako obrak oindino hasi barrik dagoz, baina hemendik gitxira hasteko asmoa dago. Obrak urte bateko iraupena izango dauala



antzematen da. Bertan hainbat aldaketa egingo ditue, patioa aldatu, harmailak kendu eta arrapala bat ipini patiora jaisteko. Eskolan igongailua ipiniko da, komunak barritau, aldagelak aldatu, sukaldea barritau, barrakoiak kendu...

Kultur Etxean musika (pianoa, gitarrea, panderoa...) eta margoketa saioak, erakusketak egiten ziran, ehiza alkattea, korreoz... be bertan egozan. Oin, Lehen Hezkuntzako gelak dagoz behar dan moduan horniduta. Ikasleek bazkaiteko jubiladuen janlekua erabilten da, patioa plazan eta heziketa fisikoa egiteko herriko frontoia erabilten da.

Arkotxako eraikina barriz ez zan erabilten, baina Haur Hezkuntzako ikasleek erabilteko hainbat obra egin behar izan dira Haur Hezkuntzako gelak, komunak eta janlekua atonduteko. Patio moduan, eraikinaren atzean dagoan bedartzea erabilten da.

Ikasturte hasikerea zaila eta arraroa izan da. Ikasleak eta irakas-



leak be ohitu behar izan dira beste modu batera lan egiten behar izan diran tresnak instalau arte. Oin beharrezko tresnak (internet, arbel digitalak, materiala...) dagoz, eta pasau dan ikasturteko egunerokotasuna gero eta hurrago dago. Aldaketa honek eskola herrian bertan izatea ekarri dau, horrek ikasle gehiengoarentzat eroso da etxetik hurrago geratzen jakie eta. Datorren ikasturteari begira, eskolako obrak amaituta egotea eta Zeanuriko eskolako ikasle guztiak bertara bueltetea espero da, 6. mailakoak izan ezik, baina seguru bisitan joango dirala eskola ikustera.

AGENDEA

ZEMENDIAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Abenduaren 2ra arte, bialdu daitekez argazkiak Arantzazuko Argazki Lehiaketan parte hartzeako *idazkaritza*. *arantzazu@bizkaia.org* helbidera.

Hilaren 11n Herriko Tabernan egingo dan sanmartinetako bertso-afarirako txartelak salgai Montero tabernan eta Herriko Tabernan, hilaren 10era arte. Txartelak 20 euro.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO
Zemendiaren 11ra arte, Beldur Barik Lehiaketara bideoak bialtzeko epea. *www.beldurbarik.eus*.

Euskaraldianahobiziedo belarriprest moduan izena emoteko epea zabalik Euskaraldiaren webgunean.

ARTEA

Abenduaren 9ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketea. Lanak Kultur Etxeko ludotekan entregau behar dira. Gero abenduaren 22tik urtailaren 8ra arte erakusketea egingo da aurkeztutako lanakaz.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Hilaren 4ra arte, *Mendian gora* euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketea. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiaren 20an jokatuko dan Lemoatx Trail lasterketearen seigarren edizinoan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik *https://inscripciones.kronoak.com* webgunean.

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazino zerbitzua Arraibin.

16:30etik 17:15era, eguaztenetan, Gazteak Aktibo, 1. eta 2. DBHko ikasleentzako kiroljarduerak kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

17:30etik 18:30era, eguaztenetan Gimnasia gidatua hirugarren adinarentzat kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak ezetuteko aukerea.

Informazino gehiago 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus* helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

ZEMENDIAK 3
DIMA

18:30ean, Maria Gorosarriren *Contra la banalización del feminismo* liburuaren aurkezpena Abaroa Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkartearen eskutik, *Zure azken borondateen dokumentua eginda*

daukazu? berbaldia Kultur Etxean.



ZEMENDIAK 4
IGORRE

18:00etan, *Gure kanoa* antzerki ikuskizuna Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 5
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatutako



Oliver Laxeren *O que arde* filma dakar zineklubak Igorrera

O que arde 2019ko Oliver Laxe galiziar zinema zuzendariaren film dramatiko da. 2019ko Cannesko Zinemaldiaren Un Certain Regard sailean estreinau zan, eta saileko epaimahaiaren saria eta soinu-sorkuntza onenaren saria eskuratu ebazan. Ikusgai egongo da Igo-rreko Lasarte Aretoan zemendiaren 10ean, 20:00etan.

Pelikulea galegoz dago eta Galizian filmau zan. Suteak eta nekazal munduaren desagertzea tratetan dau filmak eta aktore ez profesio-nalek egiten dabez aktore lanak. Amador Arias Monek eta Benedicta Sanchez Vilak egiten ditue protagonisten paperak.

Sinopsia

Sute bat eragiteagaitik espetxe zigorra bete ondoren, Amador etxera itzuliko da. Lugoko Os Ancares mendietan galdutako herrixka baten, Benedicta amagaz, Luna txakurragaz eta hiru behigaz bizi beharko da barriz. Bizitzak astiro-astiro igaroko dira, naturaren erritmoan. Sute batek ingurua suntsitzen dauan arte.

mendi ibilbidea. Pagomakurre-Zaistegi-Padrobaso. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ZEMENDIAK 6
ARTEA

13:00etan, Ou Mama! taldeko Mentxi eta Oierren The Mama Brothers kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Un héroe samurai: la leyenda de Hank*; 19:30ean, *Modelo 77* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

08:30ean, Austarri Mendi Taldearen urtekerea. Luiaondo (178 m)-Pagonabarra (606 m)-Pagolar (722 m)-Laudio (130 m). Aukeran: Amurrio-Laudio Nerbioiko bide berdea. Ibilaldiaren ostean, indaba jana Laudion.

ZEMENDIAK 7
ARTEA

19:00etan, Basoan, defendatzailean etxean, Aita Mari itsas salbamentuko kideak, Arratiako eragileakaz batuko dira proiektua ezetuten emoteko eta arratiarren aldetik konpromisoak hartzeako.

IGORRE

18:30ean, Berbalagunek antolatuta, Karlos Aretxabaletak *Sex-sua* narrazio liburuaren aurkezpena egingo dau Kultur Etxean.

LEMOA

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, ibilaldi gidatuak helduentzat Gudarien parketik urtenda. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

11:00etatik 13:30era, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazino zerbitzua Arraibin.

ZEMENDIAK 9
IGORRE

19:00etan, *Aita Mari* dokumentala Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 11
ARANTZAZU

21:00etan, sanmartinetako bertso-afaria Igor Elortza eta Unai Iturriagagaz. Herriko Tabernan. Bildu Kultur Batzordeak antolatuta.

AREATZA

21:00etan, Carlos Carranza & Charlie Cosh The Quiet Cornerren.



ARTEA

Euskaraldian izena emoteko aukerea plazan 18:30etik 20:00etara.

Gaztetxokoa zabalduten da. Barikuetan 19:00etatik 22:00etara eta

zapatuetan 18:00etatik 22:00etara.

IGORRE

20:00etan, Poesia eta musikea liburutegian Letra txarra/Mala letra taldeagaz. Poesia Hegalaria taldeko rapsodak be egongo dira.

LEMOA

19:00etan, Aita Marikoen *Mediterraneoan tragediaren lekukoak* berbaldia Karabie Gaztetxean.

20:00etan, Eneritz Furyaken kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 12
ARTEA

11:00etan, zemendiaren 25eko manifestazino osteko ekitaldirako ensaioa eskolako kiroldegian.

18:30ean, Las Poderosas Teatrorren *In la K'ech* antzezlan Basoa defendatzaileen etxean.

BEDIA

San Martin jaiak. 09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez plazatik urtenda; 10:30etik 12:00etara, txitxi-burduntzia, herriko trikitalariek girotuta; 12:00etan, mezea San Martin ermitan; 12:45ean, bola jokoa eta zozketea eta 14:40ean, baba jana eta erromeria frontoian.

IGORRE

20:00etan, Niko Etxart eta Hapa Hapa + Kerobia taldeen kontzertuak eta Jon Martinez "Txiki"ren bakarrikzketea Lasarte Aretoan. Udagoieneko Ostera.



LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, perretxiko bilketea.

18:00etan, Arratiako Caritasek antolatutako Pobreziaren kontrako VI. jardunaldia eta jaialdi solidarioa kiroldegian. Harrerea, musikea, jantzariak, antzerkia, EALeren animazinoa, zozketea eta txokolatea. Batutako dirua Auzobizi alkarterako izango da.

ZEMENDIAK 13
ARTEA

Goizean zehar, munduko arrozak eta janariak plazan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Hooper oilasko erdia*; 19:30ean, *Yalda, la noche del perdón* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Lemoako XXIII. Nekazaritzako Elikagaien Azokea Arlonagusia plazan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoa.

ZEMENDIAK 14
IGORRE

Kultur Etxeko bazkide izateko kanpainea zabalik abenduaren 22ra arte.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK
HELDUENTZAKO ZERAMIKA
IKASTAROA
Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).
GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.
TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ
Ama labradore errazakoa. Interesdunak jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonoa.

LANA
GARBIKETA LANAK
Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.
GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebtxean.

Interesdunek deitu 664 303 528.
KLASE PARTIKULARRAK
IGORREN
3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.
LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI
Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1
Karmelo Uriarteren
"Ederriko". Kontau
behar dot liburu bana.

2
Udagoieneko Osterak
emondako bina sarrera
Niko Etxart eta Hapa
Hapa eta Kerobia
taldeen kotzertuetarako.

Beinat Anzola (Igorre)
Oskar Gorostiaga (Arantzazu)

Amaia Saez (Arantzazu)
Saioa Zubiaur (Zeberio)



Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,
zozketetan
sartuko zara.
BEGITUk 20
urte eta
ehundaka
lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



 **Smurfit Kappa**
CENTRAL FORESTAL



Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68 telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.**

eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es



www.smurfitkappa.com